

Galdera

Ikasle denak (edo ume denak, liburu denak...) esatea ondo dago? Ala izenaren ondoren beti erabili behar da guztiak (ikasle guztiak, ume guztiak, liburu guztiak)?

Erantzuna

Biak erabil daitezke.

a/ Hala hitz egiten du Euskaltzaindiak bien arteko balizko ezberdintasunaz [Euskara Batuaren Eskuliburuan](#):

Dena izenik gabe eta *guztia*, berriz, izenik gabe edo izen baten ondoren agertzen delako ideia zabaldu bada ere, literatura-tradizioan ez da ageri ezberdintasun hori: baliokideak dira. Guztiak etorri dira = Denak etorri dira. Neska-mutil hauek guztiak etorri dira = Neska-mutil hauek denak etorri dira. Haren ardi guztiak zuriak ziren. / Hildako denei lurra eman

b/ Jagoneten ere halaxe erantzuten du Euskaltzaindiak [zalantza berbera](#):

Literatura-tradizioa aztertuta, ikusten da ez dagoela ezberdintasun nabarmenik, batez ere pluralean. *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko adibideek ere uste hori berresten dute **[EH:guzti]**, **[EH:dena]**.

Hortaz, baliokideak dira.